

## **BALIO PROPOSAMENA**

**Bezero bati eskaini behar diogun balioa**, bezeroaren beharrak, gure kasuan, pertsona alergikoei tresna erabilgarri bat eskaini, segurtasuna eta lasaitasuna izateko. Nabarmendu behar dugu gure produktuak arazo jakin bat konpontzen duela, (alergikoak jan ezin dituzten produktuak ekiditeko), eta abantaila paregabeak ematen dituela lehiakideekin alderatuta. Ezaugarri edo material berritzaileak, kalitatea ona, zerbitzu erakargarria, komenigarria eta baliteke pertsonalizatua izan ditzake. Gure proposamenean argi eta garbi ikusten da bezeroak zer onura lortuko dituzten gu hautatzeagatik eta gure enpresan konfiatzeagatik.

**Bezeroen behar bat asetu nahi dugu**, gure bezeroek, jateke batera doazenean. Esate baterako pertsona alergikoei, zenbait arazo izan ditzakete ez dakizkitelako jaki horren osagai guztiak, eta haien kaltegarria izan daitekeen zerbait egon liteke. Bestalde norbaitek jakin nahiko nuke bazkari horren kaloriak, proteinak eta holakoak. Hortaz produktu honekin gure bezeroen behar horiek asetu ditzakegu.

Produktu bat egingo dugu, ez zerbitzua, makina antzeko bat izango da; eta haren funtzioa bazkaltzeko orduetan jakiaren ezaugarriak eskaintzea izango da.

Produktu txiki bat egiten saiatuko gara; eramateko erraza izan dadin. Erabilgarria izango dela uste dugu, batez ere elikagaiekin arazoak dituzten pertsonekin, baina edonork erabili ditzake. Pisutsua izango balitz ez litzateke erraza izango lekuetara mugitzea, eta horregatik mugikor tamaina baino txikiagoak diren gailuak sortu nahi ditugu. Erabiltzeko erraza izatea nahi dugu. Pisu txiki bat izatea nahi dugu. Produktuak pantaila bat eramango du, eta bertan datuak agertuko dira.

Produktuan **marka egongo da**, baina minimalizatua egongo da, horrela gure enpresaren produktua dela jakingo dute, baina produktuaren irudia aldatu gabe.

Gure enpresak material ekologiko, lehen mailako eta birziklatuak edukiko ditu. Kontaminazioa ez dugu sustatu nahi. Horretarako erabiltzen ditugun tresnak, kamioiak eta kotxeak era bat elektrikoak izango dira, aldoan ditugun mendietan eguzki plakak erabiliz **ZERTARAKO?**. Bestalde, **gure lehiakideetatik bereizteko** sortzen dugun produktua, erabat ekonomikoa izango da, erosle guztien eskurako eta ekonomiarako.

**Gure lehiarako abantaila** gure filosofia da, izan ere, produktu hau ateratzeko arrazoirik nagusia gizarte inklusibo bat sortzea da. Eta gure erosleek jakitea nahi dugu, ez dugu dirurik irabazi nahi, izan ere, jendea lagundu eta kontzientziatu nahi dugu. Gure balio-proposamena oso garrantzitsua da gizartearentzako eta hori jakinaraztea nahi dugu. Bereizgarri bihurtu nahi gara, eta horretarako beti gure bezeroak lagundu nahiko ditugu, beraien onurak bilatuz.

